# SUPUESTO II: OPOSICIÓN MÉDICOS/AS DE EMPRESA

**A)** El Dr. Galeno, médico de empresa de la Diputación Foral de Bizkaia, recibe en su consulta, con fecha 1 de mayo de 2011, a la siguiente empleada pública:

Mujer de 35 años que realiza tareas de restauración de obras de arte. La evaluación de riesgos de este puesto es la siguiente:

a) Con magnitud 3 aparecen identificados los riesgos 28 (posturas inadecuadas) y 33 (agentes químicos).

b) Con magnitud 2 aparecen identificados los riesgos 01 (caídas a distinto nivel), 02 (caídas en el mismo nivel), 04 (caídas de objetos en manipulación), 09 (golpes, cortes, pinchazos con objetos o herramientas), 13 (sobreesfuerzos) y 30 (agentes físicos de confort).

PREGUNTA: Aplicar los protocolos de vigilancia de salud en función de los riesgos identificados.

**B)** SENDARI PREVENCIÓN es un servicio de prevención ajeno acreditado por la CAV para hacer prevención en seguridad, higiene y ergonomía que atiende a una población de 27.000 trabajadores. Cuenta con especialistas en seguridad, higiene, ergonomía y psicosociología, así como con diverso personal con titulación básica e intermedia. Uno de ellos, llamado Dr. Pérez, es también, a su vez, médico general y ha trabajado anteriormente en una Mutua. SENDARI PREVENCIÓN ha decidido, en base a la autorización que tiene, asumir también el área de medicina del trabajo y extenderse a todo el estado. Para ello se ha hecho una campaña entre sus empresas ofertándoles la vigilancia de la salud sin coste adicional alguno desde ese momento.

Una de las empresas que ha contratado con SENDARI PREVENCIÓN su servicio de prevención ha sido la empresa LETIX. Esta última facilita desde su departamento de personal los datos de los/las trabajadores/as que recaba de los médicos generales (Osakidetza) y de los partes de baja e incapacidad temporal, en base a las bajas por enfermedad común y a los accidentes de trabajo. Además solicita del servicio de prevención SENDARI los datos de la vigilancia de la salud.

La empresa LETIX solicita que se realice un reconocimiento previo a la incorporación al trabajo y se detecte a las mujeres embarazadas. Se solicita además que se realice con periodicidad anual un reconocimiento obligatorio a todos los/las trabajadores/as. Para no perder horas de trabajo, este reconocimiento se hace por la tarde fuera de la jornada laboral.

El Dr. Pérez de SENDARI PREVENCIÓN, siguiendo criterios propios, hace tres tipos de reconocimientos según se trate de profesionales que desempeñen funciones estáticas, dinámicas o ejecutivas. A estos últimos, además, dentro del reconocimiento, les hace una analítica completa con hemograma y bioquímica general, así como un test de exploración ginecológica en la mujer (cérvix y mama) y de cáncer de próstata en el varón.

El Dr. Pérez envía los resultados de la vigilancia de la salud vía email al director de recursos humanos de LETIX para que los imprima y los haga llegar a las personas interesadas.

Un trabajador de LETIX acude a la consulta del Dr. Pérez con claros síntomas de nerviosismo. Refiere que mantiene constantes discusiones con su responsable y recibe un trato vejatorio y discriminatorio con respecto a los demás compañeros. Asimismo, manifiesta que en su opinión podría estar bajo la influencia del denominado "síndrome de acoso moral" en el trabajo.

PREGUNTAS:

1. ¿Qué irregularidades realizó la empresa SENDARI PREVENCIÓN al ampliar la vigilancia de la salud y al extender su actividad a todo el estado?
2. ¿Qué irregularidades realizó la empresa LETIX al solicitar determinados datos al servicio de prevención?
3. ¿Es correcta la forma en que el Dr. Pérez realiza la vigilancia de la salud y así como la comunicación de los resultados?
4. ¿Cuál sería la manera de actuación del médico de trabajo para hacer frente a la demanda de supuesto caso de acoso moral?
5. En el supuesto de que estuviésemos en un positivo caso de acoso moral, ¿cuáles serían las estrategias de intervención para proteger la salud del trabajador? Tener en cuenta que trabaja a tres turnos, está recibiendo tratamiento con antidepresivos y ansiolíticos y se encuentra en estos momentos en situación de IT.

# II. KASUA: ENPRESA MEDIKUA LANPOSTUEN OPOSIZIOA

**A)** Bizkaiko Foru Aldundiko enpresa medikua den Galeano doktoreak langile hau hartu du bere kontsultan 2011ko maiatzaren 1ean:

Emakumezko bat, 35 urtekoa, artelanen zaharberritze-lanetan diharduena. Lanpostu horren arriskuen ebaluazioa:

a) 3 mailako arriskuak: 28 arriskua (jarrera desegokiak) eta 33 arriskua (agente kimikoak).

b) 2 mailako arriskuak: 01 arriskua (maila ezberdinetako erorketak), 02 arriskua (maila bereko erorketak), 04 arriskua (manipulatzen ari diren objektuen erorketak), 09 arriskua (kolpeak, ebaketak eta ziztadak, objektuak edo tresnak erabilita) 13 arriskua (esfortzu-gehiegikeriak) eta 30 arriskua (konforteko agente fisikoak).

**GALDERA:** identifikatu diren arriskuen arabera bete behar diren osasun-zaintzako protokoloak ezarri.

**B)** SENDARI PREBENTZIOA beste enpresa batzuei prebentzioko zerbitzua eskaintzen dien enpresa bat da, EAEk egiaztatua. 27.000 langileri eskaintzen dizkie segurtasun, higiene eta ergonomia arloetako prebentzio-zerbitzuak. Segurtasun, higiene, ergonomia eta psikosoziologia arloetako espezialistak ditu, baita oinarrizko eta tarteko titulazioa duten beste hainbat langile ere. Langile horietako bat Perez jauna da. Medikuntza orokorreko medikua da eta aurretik Mutua batean egin du lan. SENDARI PREBENTZIOAk lan medikuntzaren arloa ere bere gain hartzea eta estatu osora hedatzea erabaki du, jarduteko eman zitzaion baimenean oinarrituta. Hori dela eta, zerbitzua eskaintzen dien enpresen artean kanpaina bat egin du: enpresako osasun-zaintza eskaini die, une horretatik hasita, eta inolako gastu gehigarririk gabe.

SENDARI PREBENTZIOAren prebentzio-zerbitzua kontratatu duten enpresetako bat LETIX deritzon enpresa da. Enpresa horrek Osakidetzako medikuntza orokorreko medikuei enpresako langileei buruzko datuak eskatu dizkie bere langile departamendu edo ataletik, baita baja eta aldi baterako ezgaitasun edo ezintasuneko agiriak ere, gaixotasun arrunteko eta lan-istripuetako bajetan oinarritutakoak. Horrez gain osasun-zaintzako datuak eskatu dizkio SENDARIri.

LETIX enpresak lanean hasi aurretik azterketa medikoa bat egitea eta haurdun dauden emakumeak detektatzea eskatu du. Bestetik, urtean behin langile guztiei nahitaezko azterketa edo miaketa bat egitea eskatu du. Lanorduak ez galtzeko, azterketa hori arratsaldez egin zaie langileei, lanalditik kanpoko orduetan.

SENDARI PREBENTZIOko Perez doktoreak hiru azterketa mota egin ditu, bere irizpideetan oinarrituta: zeregin estatikoak, dinamikoak edo zuzendaritzakoak egiten dituzten langileak bereizi ditu. Hirugarren multzokoei, gainera, analitika oso bat egin die, hemograma eta biokimika orokorra barne, eta emakumezkoei miaketa ginekologikoko test bat (cervixa eta bularrak) egin die eta gizonezkoei prostata-minbiziarena.

Perez doktoreak posta elektronikoz bidali dizkio osasun-zaintzako azterketen emaitzak LETIX enpresako giza-baliabideen zuzendariari, beronek inprimatu eta interesdunei helarazi diezazkien

LETIX enpresako langile bat Perez jaunaren kontsultara aurkeztu da, urduri samar. Bere arduradunarekin eztabaida ugari izaten dituela adierazten dio, eta gainerako lankideen aldean tratu iraingarria eta baztertzailea eskaintzen diola arduradunak. Bestetik, lanean "jazarpen moraleko sindromea" delakoaren eraginpean egon daitekeela adierazten dio doktoreari.

**GALDERAK:**

1. Zeintzuk dira SENDARI PREBENTZIOA enpresak osasun-zaintzaren zerbitzua zabaldu eta bere jarduera estatu osora hedatzean egin dituen irregulartasunak?
2. Zeintzuk dira LETIX enpresak prebentzio zerbitzuari zenbait datu eskatzean egin dituen irregulartasunak?
3. Zuzenak dira Perez doktorearen osasun-zaintza egiteko modua eta emaitzak jakinarazteko modua?
4. Balizko jazarpen moralaren inguruko eskaera dela eta, zer egin beharko luke laneko medikuak?
5. Benetako jazarpen moraleko kasu bat izanez gero, zeintzuk lirateke jazarpena jasaten duen langilearen osasuna babesteko jarraitu beharko liratekeen estrategiak? Kontuan hartu beharreko datuak: langileak hiru txandatan egiten du lan, tratamendu bat jarraitzen ari da (antsiolitikoak eta antidepresiboak hartzen ditu) eta egun AE (aldi baterako ezintasuna) egoeran dago.